




 IKUSMIRA

AURRERABIDEA ATE JOKA ETA INDIOAK KEXU

Trena aurrerabidea da. Omen. Indioek baino ez zuten trenaren aurka egin, «mundu berri» hartan. Mundu zahar honetan, berriz, lau baserri-tarren. Aurrebidean aurrera egiteko tresna hori ez zelako beren aurrebidea. Gaur egun inork ez du ukatzen trena tramankulu ona dela. Baina aurrebidean aurrera egiteko tresna hori ez da aurrerabidea. Atzo Gasteizko trenbidea lurperatzeko proiektua aurkeztu zuten. Polit askoa. AHTri esker gauzatuko dute halako batean, akaso, proiektu



Endika PORTILLO | FOKU

tu hori, Bilbora eta Donostiara, eta akaso Iruñera, aitaren batean iristeko tren bizkorren proiektuaren baitan, hilean hilean aurrekontua emendatzen duen proiektua. Metropoli-ko ministroak euskal gizartearen premiekiko konpromisoa agertu zuen; hainbat indio-
k, ordea, oraindik ez dakite zein diren beren premiak. Milioi batzuen banaketaren berri eman zuten agintariek: ehunka batzuk Metropoliaren bizkar, beste batzuk Gasteizko Gobernuaren, Aldundiaren eta Udalaren kontura. Den-dena ordainduko dute eurek. Zeren kexu dira indioak?

Xabier Izaga Gonzalez